

## **Gipuzkoako basozainen elkarte profesionalaren erantzuna hainbat artzainen funtsik gabeko salaketen aurrean**

Azken urteetan Gipuzkoako basozainok gure kontrako hainbat salaketa eta kritika publiko jaso dugu artzainen kolektibo zein EHNE eta ENBA sindikatuen aldetik. Langile publikoak izanik, zilegi deritzogu herritarrek gure lana kritikatzeko, baldin eta kritikek oinarria baldin badute eta egiazkoak badira. Zoritxarrez ez da hori kasua.

Azkenak azaroaren 6an Eskoriatzan prentsaurrekoan zenbait artzainek egindakoak izan dira. Horren aurrean basozainon kolektiboak gure azalpenak emateko beharra sentitu dugu.

Egoera honen aurrekari bezala honako hau aipatu dezakegu; Izarraitzeko Kontserbazio Bereziko Eremuan, mendian inolako kontrolik gabe eta balore ekologiko handiko bertako zuhaitzen landaketetan kalteak eraginez zebiltzan ahuntzak kontrolatu asmoz, 2014ko urtean Azkoitiko udalak ganaduzaleei neurriak hartzeko eskatzeko bandoa argitaratu zuen.

Ikusirik ganaduzaleek ez zutela kasurik egiten, 2014ko Azkoitiko udalak identifikaziorik gabeko ahuntzak akabatzeko eskatu zion Foru Aldundiari. Eskaera honen aurrean, Baso Zerbitzuko Zerbitzuburuak, horrela egiteko agindua eman zigun basozainoi. Beste aukerarik ez denean, azken aukera bezala egiten dira ehizaldi hauek, eta Izarraitzeko kasuan, ezinezkoa zen ahuntzak bizirik harrapatzea.

Hala eta guztiz hilabetetako epea eman zitzaion artzainei kontrolik gabeko haien abereak jasotzeko eta azkenean, hala beharrez, zenbait ehizaldi burutu ziren. Saiakera hauek egiten genituen bitartean ganaduzale bat baino gehiago ikusi genuen, baina ezjakinarenak egin zuten eta kasu batzuetan basozainon ahaleginez trufatu ere.

Gauzak horrela abuztuaren 26an ahuntzak Azkoitiko lurretan aurkitu genituen paraje malkartsu batean eta identifikaziorik gabeko 8 ahuntz bota genituen. Ahuntzak babestutako hegazti sarraskijaleek jateko moduan ipintzen ari ginelarik norbait oihuka sumatu genuen eta berarengana abiatu ginen, baina bere onetik aterata zegoenez ezinezkoa izan zitzaigun berekin hitz egitea. Guri argazkiak atera zizkigun eta ondoren sare sozialetan zabaldu zituen gure baimenik gabe.

Ondoren, ahuntzak beraienak zirela zioten hainbat artzainek salaketa jarri zuten basozainon aurka. EHNE eta ENBA sindikatuek, beraien interes politikoak defendatu eta gure aurka egin nahian, mota guztietako gezurrak aireratu zituzten komunikabidetan. Ahuntzen jabeek ez zutela bandoen berri, kontrolatutako ahuntzak zirela, ukuilu batetara joan eta hango animaliak hiltzea bezalakoa zela egin genuena, basozainak abereen hiltzaile hutsak ginela, epaiketara ez ginela aurkeztu ... hamaika gezur eta irain!

14 urte beranduago, auzi honetan zipriztindurik izan ziren basozainak libre atera dira. Epailleak, basozainok zuzen jokatu genuela ebatzi du. Eta denbora horretan basozainok isilik egon gara, baina orain, gure aurkako beste eraso publiko berri honen aurrean, unea dugu egoera hau argitzeko.

Aizkorri-Aratz Parke Naturelean kontrolik gabeko txakur batzuk ardiengan eragin dituzten kalteak direla eta, artzain talde batek prentsaurrekoa egin zuen Eskoriatzan azaroaren 6an. Bertan artzainek kasu honetan basozainen utzikeria salatzen zuten.

Txakur horiek tiroz botatzeko, harrapatzerik ez baitago, prozedura zorrotza jarraitu behar da; basozainok ezin dugu erabaki hori gure kabuz hartu eta tiroka hasi; Udala

eta Aldundiak hartu behar dute erabakia, beti ere arautegiak dioena jarraituz. Basozainok ez dugu orain arte zentzu horretan inolako eskaera edo agindurik jaso.

Ahuntzen kasuan, nahiz eta Mendi Foru Arauak ondo azaldu jarraitu beharreko prozedura eta guk horrela jokatu, bi basozain epaitegietara eraman zituzten artzainek lehen aipatutako EHNE eta ENBAren laguntzaz. Txakurren kasuan berriz ez dago prozedura zehazturik, eta basozainok ezin dugu besterik gabe armak hartu eta tiroka hasi, ezta baimen hori inori eman. Gizarteak bere buruari arauak jarri dizkio halako kasuetan jokatzeko, eta guk hori profesionalki betearazteko gaude.

Kontrolik gabeko etxeko animalien arazoa gero eta larriagoa izanik, basozainok prest gaude arazo horri konponbidea topatzen laguntzeko, baina beti legeak zehaztutako moduan eta horretarako prozedurak eta baliabideak (nahiko basozain kopuru eta baliabide teknikoak) jartzen badira, artzainen alde, baina aldi berean babestu behar dugun animalien ongizate eta Ingurugiroaren alde.

Azaldu behar dugu basozainok azken urteetan Aldundiko kargu politikoen aldetik babes eza nabarmena jasaten dugula. Ez gaituzte aintzakotzat hartzen; baztertuta gaude eta ez dago inolako komunikaziorik ezta erantzunik gure eskaera eta beharrei. Hala ere saiatzen gara indarrean dagoen legedia betearazten eta gure funtzio administratiboak burutzen. Horrela, oztopoak oztopo, ahal dugun lan txukunena egiten saiatzen gara, esan bezala, gure nagusien babesik gabe bada ere.

Egoera ikusita, Gipuzkoako Basozainen Elkarteak sortu genuen 2017. urtean. Aldundiak bere alde betetzen ez duenez, hainbat ardatz nagusi dugu. Basozainon formazio profesionala sustatzen dugu, eta Aldundiari zera eskatzen diogu; bitarteko materialak, basozainon kopuru nahikoa gure lana behar bezala betetzeko, basozainon antolaketa egokia eta basozainon lana gizarteratzea, urte askotako inbisibilitatearekin amaituz ... zeren eta gipuzkoar askok ez dakite basozainon egin beharra zein den eta Elkarrekin, gaur bezala, gure egunero zereginak zabaltzea ere du helburu.

Bizkaia, Araba eta Nafarroako Basozainen Elkarteekin harremanak estutu ditugu eta Espainiako beste elkarten berri ere badugu, eta konturatu gara, salbuespenak salbuespen, beste tokietan ere basozainok antzerako arazoak ditugula. Kasu askotan gure lana ez da aintzakotzat hartzen eta horri buelta emateko pauso sendoak eman behar ditugu.

Gizartea etengabe aldatzen ari da, eta noski baita mendiko mundua ere, eta erakundeak eta basozainok jakin behar dugu egoera berrietara egokitzen. Gure nahia gipuzkoarrei eskaintzen diegun zerbitzua hobetzea eta lanbidea profesionalizatzea da. Jakin dezatela baita ere gipuzkoarrek, basozainok ez garela gure kabuz aritzen, indarrean dagoen legedi zabala ahal den hobekien bete arazten saiatzen garela. Izarraitzeko ahuntzen kontrola ez zen izan gure kapritxo bat, ganaduzalek eta talde batzuek zabaldu zuten moduan. Gipuzkoa Mendi Foru Arauak betez eta Aldundiak ezarritako protokoloak jarraituz jokatu genuen. Txakurren kasuan ere berdin jokatuko dugu.

Bitartean Naturan gure zaintza ( basozainak gara) zein herritarren zerbitzuan lan administratiboak egiten jarraituko dugu, dauzkagun bitartekoekin. Gure elkartasun eta laguntza guztia duen Gipuzkoako lehen sektorearen zein Ingurugiroaren alde.